

2015EKO URTARILAREN 29AN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2015eko urtarrilaren 29an, arratsaldeko 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AITOR APRAIZ IMATZ

Zinegotziak:

- PALOMA DE EPALZA GARCES DE LOS FAYOS
- ELSA MARÍA IMATZ BASARRATE
- LUIS FLORENCIO ZABALA SANTA ANA
- ALBERTO BILBAO BELTRÁN DE GUEVARA
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA
- MIREN LUKE VERDES CEARRA
- AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA
- JON PELI HORMAECHE ASOLO

FELICIANO JAUREGUIZAR ORAINDI eta GORKA RENTERIA GARAI zinegotziak ez dira bertaratu

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deustela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehendakaritzapean ondorengo gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

1.- 2014KO ABENDUAREN 18AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2014ko abenduaren 18ko ohiko udalbatzaren akta, eta alkateak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotzietz akta hori aho batez onartu dabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON.

Gai honeri hasikera emoteko, idazkariak ondorengo dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

379/2014.- *Abokatuak eta prokuradoreak izendatzeko ebazpena.*

380/2014.- *Udaltzaina izendatzeko ebazpena.*

381/2014.- *Kolunbario baten emakida.*

382/2014.- *Etxebizitza bateko gelea konpontzeko udal lizentzia.*

383/2014.- *Suetea eta bainugela konpontzeko udal lizentzia.*

384/2014.- *Suetea konpontzeko udal lizentzia.*

385/2014.- *Olentzeroren jaialdia ospatzeko baimena eta diru-laguntzinoa.*

386/2014.- *San Silbestreko lasterketea egiteko baimena.*

387/2014.- *Bost&bost egiteko baimena eta laguntzinoa.*

388/2014.- *Posta zerbitzua esleitzeko ebazpena.*

389/2014.- *Fatxada eta balkoiak konpontzeko udal lizentzia*

390/2014.- *Udalerriko alkarte bateri diru-laguntza esleitzeko erabagia.*

391/2014.- *Udalerriko alkarte bateri diru-laguntza esleitzeko erabagia.*

392/2014.- *Udalerriko alkarte bateri diru-laguntza esleitzeko erabagia.*

393/014.- *Udalerriko alkarte bateri diru-laguntza esleitzeko erabagia.*

394/2014.- *Udalerriko alkarte bateri diru-laguntza esleitzeko erabagia.*

395/2014.- *Udalerriko alkarte bateri diru-laguntza esleitzeko erabagia.*

396/2014.- *Udalerriko alkarte bateri diru-laguntza esleitzeko erabagia.*

397/2014.- *Udalerriko alkarte bateri diru-laguntza esleitzeko erabagia.*

398/2014.- *Funtzionario baten borondatezko eszedentzia.*

399/2014.- *Gorpuzkinak atarateko luzapena.*

400/2014.- *Sasiak ebagiteko makina bat erosteko ebazpena.*

401/2014.- *Asfaltatzeko kontratu txiki bat esleitzeko ebazpena.*

402/2014.- *Pertsona bateri udal erroldan baja emotea.*

- 403/2014.- *Haurreskola eta herri ikastetxea garbitzeko zerbitzuaren esleipena.*
- 404/2014.- *Bakio Surf alkarteko lokalaren alokairua.*
- 405/2014.- *Bakio Surf alkarteko lokalaren azpierrentamendu kontratua onestea.*
- 406/2014.- *Promociones Gailur Alde, S.L enpresaren konpentsazioa onestea.*
- 407/2014.- *Akatsez hartutako betebeharren ezeztapena onestea eta hurrengo kontabilitate idazpenaren saldoa zuzentzea.*
- 408/2014.- *2014ko ekitaldiko aurrekontu itxietan onartutako eskubideen hasikerako saldoaren aldarazpena onestea, 2.365,00 euroko zenbatekoan.*
- 409/2014.- *aurreko ekitaldiei dagozkien kredituen aintzatespena onesteko ebazpena.*
- 001/2015.- *Nitxo baten kontsezioa.*
- 002/2015.- *Arriskutsuak izan daitezkezan animaliak eukiteko lizentzia.*
- 003/2015.- *166/2012 prozeduraren barruan emondako epaia dala-eta aurkeztutako apalezino-helegiteari aurka egitea.*
- 004/2015.- *PALOMA DE EPALZA GARCES DE LOS FAYOS zinegotzia izendatzea, 2015eko urtarrilaren 23ko Haurreskolak Partzuergoaren Batzar Nagusian Bakioko Udalaren ordezkaria izateko.*
- 005/2015.- *Urigintza-plangintzaren aurrerapen agiria jendaurrean ezartzeko epea luzatzea.*
- 006/2015.- *Eraikin bateko teilatua konpontzeko udal lizentzia.*
- 007/2015.- *Horman gailurrak iminteko udal lizentzia.*
- 008/2015.- *Udalaren bilkurak grabetako baimena emotea.*
- 009/2015.- *Bakioko Udalaren Faktura Elektronikoen Sarrera Puntu Nagusia sortzea.*
- 010/2015.- *Bakioko Udal Korporazioak kudeatzen dituen datu pertsonalak dituzten fitxategiak erregulatzea.*
- 011/2015.- *Babes ofizialeko etxebizitza bateri jagokonez, Bakioko Udalak erosteko daukan lehentasunezko eskubidea ez erabiltea.*
- 012/2015.- *BISKAYTIK PROIEKTUaren esparruko hitzarmena onartzea.*
- 013/2015.- *Etxebizitza bateko suetea konpontzeko udal lizentzia*

409/2015 dekretuaren bidez, 87.128,65 euro — kredituen judizinoz kanpoko aintzatespena — indarrean dagoan udal aurrekontuaren gastuaren orriaren bigarren kapituluan zainpetu dirala eta, Ametz Jauregizar zinegotziak, BILDU-BAKIO udal taldearen izenean, dino legearen arabera, udal aurrekontuan dirurik egon ezik judizinoz kanpoko aintzatespena buruz erabagia hartzea udalbatzaren eskumena dala.

Horrezaz, Idazkariak adierazo dau aurreko ekitaldiei jagokezan obligazioak aintzat hartzeko — obligazinook ekitalde bakotzeko udal aurrekontuan zainpetu barik egon diralako — udal aurrekontuaren gastuen orrian sartzeko gura bada, aurrekontu partidetan zainpetuz, zainpetzeko erabagia Alkatearena edo udalbatzaren izan daitekela, beti be honen arabera: obligazinoak udal aurrekontuan sartzeko, udal aurrekontuko diru-sarrereren orria aldatu behar bada, hau da, diru sarrera gehiago behar dalako, Udalbatzari jagoko erabagia hartzea.

Osterantzean, obligazinoak udal aurrekontuko gastuen orrian sartzeko diru-sarrereren orria aldatu beharrik ez balego, udalbatzari ez legoke erabagia hartzerik, Alkateari baino, kredituen judizinoz kanpoko aintzatespenaren bitartez.

Hori adierazo ostean, Ametsek dino:

Batetik, udal aurrekontua oso doitua dala jakinda, gure proposamena da hauxe: udal aurrekontuko gastuen orrian zainpetuta dagozan gastu batzuk ez egikeran, diru-sarrera orrian horreetarako bideratuta egon diran zenbatekoak murriztu diran gastuak handitzeko erabiltea.

2013ko udal aurrekontuaren likizadinoan azaltzen zan udal aurrekontutik kanpo guztira 492.635,78 euro zenbatzen eben fakturak egoazala, eta jakin gura doguna da horreetatik orain 87.128,65 euro aurrekontuan sartu beharrean ia zergaitik ez dan zenbateko ha guztia sartu, judizino kanpoko aintzatespena eginaz.

Idazkariak hauxe adierazo dau:

Momentu honetan hori egitea ezinezkoa da, zergaitik eta, udal aurrekontuetatik kanpo geratu dan zenbatekoa (492.635,78 - 87.128,65= 405.507,78 euro) aurrekontuan sartzeko judizinoz kanpoko aintzatespena egin behar da, baina horreetarako udal aurrekontuko diru-sarrereren orriko errekurtsu arrunten (1etik 5. kapitulura) partidetan zainpetuta dagoan baino diru kopuru gehiago batu beharko litzateke. Gehikuntza hori 405.507,78 eurokoa izango balitz, orduan bai diru-sarrerako gehikuntza hori udal aurrekontuan zenbateko hori batzen dabezan fakturak sartzeko erabili ahal izango litzateke, eta orduan bai udalbatzaren eskumena izango litzateke kredituen judizinoz kanpoko aintzatespena onartzea.

Baina, kasu honetan be gertatzen dana da diru sarrera arrunt gehiago egon ezker horreek banketxeen mailegua amortizatzer bideratu beharko litzatekela, doikuntza plangintzaren aginduz.

Horrenbestez, gertatzen dana da udalak onartu eban doikuntza plangintza indarrean jarraitzen dauan bitartean, guztira zenbatzen daben 405.507,78 euro horreek udal aurrekontuan sartu ahal izango dirala gastuen orrian zainpetutako gastu gitxiago egiten dan bitartean, baina zainpetutako diru sarrera arruntak igo barik.

Horren harira, Ametsek dino ia sinesta ezina egiten jakola hain murrizketa asko egin dan aurrekontuaren gastuen orrian gastu batzuk ez gauzatzea eta, ondorioz, diru-sarreren orrian, gauzatu ez diran gastu horreei bideratutako zenbatekoak soberan egotea.

Hori albo batera itxita, Ametsek dino judizinoz kanpoko aintzatesitako fakturen zerrenda (87.1228,00 euro), faktura bakoitxak erreferentzi zenbakia daukala-eta, ia zer dan galdetu dau, esaterako, ze erispideren arabera aukeratu da faktura batzuk udal aurrekontuaren barruan sartzea eta beste batzuk ez?.

Atoan erantzuna emotea ezineskoa dala-eta Alkateak dinotso:

Erreferentzi zenbakien esanahiaren ganeko argibideak hurrengo informazio batordean emongo dira, orain bertan erantzuna emotea ezinezkoa da eta.

Faktura batzuren ganean kredituen judizinoz kanpoko aintzatespena egitea eta, horrenbestez, udal aurrekontuan sartzea gura dau esan faktura horreek adierazoten dabezan gastuak aurrekontu partida zehatz batzuetan zainpetu beharrekoak dirala, eta, beraz, partida horreetan gastu gitxiago egin dan ezkerro, lekua dagoala. Horrenbestez, erispide hori erabili da.

Ametz Jauregizar zinegotziak, 11/2015 zk. dekretuari buruz — Babes Ofizialeko Etxebizitza erosteko Bakioko Udalak daukan lehentasunezko eskubidea ez erabiltea — ondorengo adierazo dau:

Egia da lehentasunezko eskubidea erabili ezkerro, udalak etxebizitza erosteko dirua eskuratzera behartuta legokela, baina Babes Ofizialeko Etxebizitzaren salerosketaren gaia dala-eta udalak ekimena azaldu beharko leuke, ekimena bulego higiezinaren esku itxi beharrean. Guk pentsaten dogu herri honetan badagozala etxebizitzak eskuratzeko eskabideak eta hor udalak eskabide horreek asetzeko orduan bere ardurea hartu beharko leuke, esaterako eroslea hautatzeko orduan bitartekaritza lanak eginez, eta ez bulego higiezinaren bitartez. Hortaz, udaletxean dagoan etxebizitzaren eskabideen lan-poltsa urtero eguneratu behar da, urtero eskabide barriak eta ezberdinak egon daitekezelako, eta hori udalaren eskumena da, herritarren beharrezana asetzea dan neurrian.

Iker Muruaga zinegotziak dino: hartu dan erabagia legezkoa da, hau da, lehentasunezko eskubidea ez erabiltea, ze azken batean etxebizitzaren salerosketaren kontratuaren legezotasuna Etxebidek kontrolatzen dau eta. Beste asunto bat da lehentasunezko eskubidea erabilteari buruzko egokitasuna.

Segiduan, Haurreskola Partzuergoak 2015.01.23an egindako batzarrean udala ordezkatzeko Paloma de Epalza zinegotzia izendatzea erabagiten dauan urtarrilaren 13ko 004/2015 dekretua onartu behar dan ezkerero, zinegotziek botoa emon dabe, eta, ondorioz, Aitor Apraiz, Floren Zabala, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz EAJ/PNVko zinegotzien aldeko botoagaz, hau da, bertaratutako zinegotzi gehienak izanik, Bakioko Udalbatzak, dekretu hori onartzea erabagi dau.

BILDU/BAKIO taldeko Amets Jauregizar, Alberto Bilbao, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaecheko zinegotziek, barriz, abstenidu egin dira, zergaitik eta, ordezkaria hautatzeko orduan eritxia emoteko aukerarik izan ez dabelako.

3.- BAKIOKO UDALAREN ARGITERIA PUBLIKOAREN INSTALAZINOEN MANTENIMENDUA BERME GUZTIAZ EGITEKO, ARGINDARRAREN ZERBITZUEN KONTRATUAREN ESLEIPEN PROZEDUREA DALA ETA, ERABAGI HAU HARTU: KONTRATAZINO MAHAIAREN PROPOSAMENA ONARTU ETA AURKEZTU DAN LIZITATZAILE BAKARRARI ADMINISTRAZINO-KLAUSULA BEREZIEN AGIRIAREN 13. KLAUSULAN AZALTZEN DAN DOKUMENTAZINOA ESKATU. ERA BEREAN, ALKATEARI ESKUMENA EMON KONTRATUA ESLEITZEKO, BEHIN LIZITATZAILEARI ESKATUTAKO DOKUMENTAZINOA AURKEZTU OSTEAN.

Zinegotziak izapidetu dan espedientearen jakinaren ganean dagozan ezkerero, Aitor Apraiz alkateak egindako tramiteei buruzko azalpen arina emon dau, tramite horreen ondorioa gaur bertan hartzea proposatzen dan erabagia dala zehaztuz, eta bertaratutako zinegotzietan gonbitea egin deutse horrezaz eritxia emoteko.

Amets Jauregizar zinegotziak, BILDU-BAKIO udal taldearen izenean, dino:

Kontratuaren epea 15 urtekoa da, luzatzen ez bada behintzat, eta luzeegia da tarte horretan arazo asko gerta daitekezelako, izan be, erakunde publikoetan epe horretako kontraturik oso gutxi egiten dira.

“Consultoria Luminica” enpresek egindako auditorian aurreikusten da Bakioko argindarraren zerbitzuaren kontratistek egindako inbertsinoa zortzi urte eta bost hilabeteen berreskuratuko dauala. Eta guk ikusten dogu epe hori amaitzen danetik eta kontratuaren epea igaro bitartean (luzapena be kontuan hartuz), kontratistek, ziur asko, irabazi onak izango dauazala — izan be, euren helburua irabaziak lortzea dira —, baina Bakioko Udalak hortik ez dauala ezelango irabazirik izango. Horrenbestez, uste dogu kontratuaren epea luzeegia dala aurrezkiak enpresearen eta udalaren artean konpartitu ezik.

Hau da, udalak daukan energiaren kontsumoaren gastua, gitxi gorabehera, 145.000 eurokoa izan arren, lizitazioaren zenbatekoa 122.314,05 eurokoa izango da, eta enpresek inbertsinoak egin ostean, energiaren kontsumoa/gastua %80 gitxiagoa

izango da, eta, beraz, enpreseak energiaren kontsumoaren gastuagaitik gitxiago ordainduko dau (gaurkoaren %20a), udala enpreseari urtero berdin ordaintzen segiduko dauan arren.

Segiduan, Alkateak berbea hartu eta adierazo deutso hori ez dala horrela, enpreseak etekinak edo galerak eukiteko arriskua dauka; hau da, enpreseak orain arriskua hartzen dau, inbertsino handi bat egingo dau (800.000,00 eurokoa) berrikuntza lanak eginaz herriko argiteria eguneratzeko (udalak egin ezin ahal dauana), inbertsinoaren kostu ekonomikoagaitik, eta inbertsinoaren gastua berreskuratzeko kontratu luzea eskaini beharra egon da, hau da 15 urte, ze urte gitxiagoko kontratua egiteko aukerea aztertu dan arren, ikusi da enpresentzat ez zala izango bideragarria; ganera enpreseak urtero-urtero, kontratua amaitu arte, energiaren kontsumoagaitik ordaintzen jarraitu beharko dau. Arrisku handia hartu daunaren seinalea da Tecuni S.A. izan dala lizitazinora aurkeztu dan enpresa bakarra. Hainbat enpresak aztertu dabez kontratazino horren pleguak, eta danak bat etorri dira irabaziak izateko tarte txikia dagoala esateko orduan.

Ametsek dino:

“Bere asmoa ez da enpresearen ekinbidea kritikatzea izan, enpreseak irabaziak eukitzea gura izatea logikoa dalako, horren helburua horixe da-eta. Berak gura dauana esan da udal gobernuak udalaren interes ekonomikoa bermatu behar dauala, enpresearen interesaren ganetik, eta datu objektiboa da, lehen esan dauan modura, enpreseak inbertsinoak egin ostean, energiaren kontsumoa/gastua %80 gitxiagoa izango dan ezkerro, enpreseak energiaren kontsumoaren gastuagaitik gitxiago ordainduko dauala (gaurkoaren %20a), udala enpreseari urtero eta kontratua irauten dauan bitartean berdin ordaintzen segiduko dauan arren.

Esan dan modura datu objektiboak dira, beste kontu bat da kontratua gauzatzen dan neurrian gerta daitekezan datu ekonomikoak”.

Kontratazino mahaari buruz Ametsek dino:

BILDU-BAKIO taldeak 2014ko irailaren 11ko udalbatzarrean esan eban modura kontratazino prozeduraren tramitazioaren gardentasuna bermatzeko modu egokienetariko bat kontratazino mahaian oposizino zinegotziren batek parte hartzea litzateke, eta parte hartzea eskatu egin genduan arren ukatu egin jakun, ganera ukatzeko ez dogu ikusten zentzuzko arrazoirik dagoanik, udal gobernuko zinegotziak, halanda be, mahaian gehiengoak izango litzatekezela kontuan izanik.

Alkateak erantzun deutso esanez prozedura gardentasunez egin dala, eta, horretarako, esan beharra baino ez dagoala udal talde bietako zinegotziek eta EVE erakundeko teknikariek izan eben bilerea; izan be, bertan teknikariok, euren kabuz eta zinegotzien galderei erantzunez, kontratuaren edukiaren buruzko azalpenak emon ebezen, eta, horrezaz gain, prozedura izapidetu dan neurrian kontratugilearen profilean joan da agertzen prozedura horretako agiriak.

Horrela bada, honako hau guztia hartu behar da kontuan: *“Ikusirik udalbatzak 2014ko garagarrilaren 30ean egindako osoko bilkuran hauxe onetsi ebala: Bakioko Udalaren argiteria publikoaren instalazioen mantenimendua berme guztiaz egiteko, argindarraren zerbitzuen kontratua esleitzeko prozedura zabal bitartez izapidetzea eta kontratazino espedientea onartzea, kontratua arautuko dauzan klausula administratibo berezien eta preskripzino teknikoen agiriak barruan dirala.*

Ikusirik udalbatzak 2014ko irailaren 11 egindako osoko bilkuran, ebatzitako aldarezpenen ondorioz, klausula administratibo berezien agiria behin betiko zehaztuta geratu zala.

Halanda ze, lizitazino iragarkiak Europar Batasuneko Aldizkarian, Estatuko Aldizkari Ofizialean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udal oholtzan eta kontratugilearen profilean argitaratu ziran legez ezarritako epean, interesdunek bidezko proposamenak aurkeztu eiezan.

Lizitazino barruan bakarrik Tecuni, S.A.ren proposamena aurkeztu zan.

Ikusirik 2015eko urtarrilaren 9an Kontratazino Mahaia osotu eta lizitazinora aurkeztu dan enpresa bakarraren (Tecuni, S.A..) aldeko adjudikazino proposamena egin ebala.

Horrela bada, proposamenagaz eta horrerri buruzko agiriekaz bat etorritz, Arlo Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 151. artikulua eta bigarren xedapen gehigarriak ezarritakoaren arabera, Bakioko Udalbatzak ondorengo erabagi hau hartu dau bertaratutako zinegotzien gehiengoaren aldeko botoagaz, hau da, EAJ-PNV udal taldeko Aitor Apraiz, Floren Zabala, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz:

LEHENA. Kontratazino Mahaiak egindako balorazino proposamena onartzea, puntuazinoa hauxe izanik

B gutun-azala.-Proposamen teknikoa. Balioespenaren arabera balorazioa: 48 puntu, 50etik.

C gutun-azala.- Proposamen ekonomikoa eta formulak aplikatuz modu automatikoan baloratu daitezkezan elementuak: 45 puntu, 50etik.

Emondako puntuazinoa, guztira: 93.

BIGARRENA. TECUNI S.A. enpresari jakinarazotea eta, era berean, honakoa eskatzea: administrazino klausula partikularren 13. baldintzan ezarritako dokumentazinoa hamar eguneko epean aurkezteko, beti be agin-deia jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita.

HIRUGARRENA. Toki Araubidearen oinarriak arautzan dauzan 7/1985 Legearen 22.4 artikulua eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateratuaren 51.2. artikulua arabera, Bakioko Udalbatzak, Bakioko

Udalaren argiteria publikoaren instalazioen mantenimendua berme guztiaz egiteko, argindarraren zerbitzuen kontratua Tecuni, S.A. enpreari esleitzeko, Alkate jaunari eskumena emon, bai eta, esleipen erabagia gauzatzeko beharrezko agiriak sinatzeko be, besteak beste, agiri administratiboaren bitartez kontratua formalizatzeko; hori guztiori bideratuko da enpresa horrek eskatutako agiriak aurkeztu ostean.

BILDU/BAKIO taldeko Amets Jauregizar, Alberto Bilbao, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaeche zinegotziek, barriz, abstenidu egin dira.

4.- BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO OGASUN ETA FINANTZA SAILAREN ETA BAKIOKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTU, HALA BEHAR BALITZ, BETI BE ZUZENBIDE PUBLIKOKO SARRERAK NAHITAEZKO PROZEDURAREN BITARTEZ BILTZEKO.

Zinegotziak hitzarmenaren edukinaren jakitun diran ezkerro, eta informazio batzordean berba egin dan ezkerro be, Idazkariak hitzarmenari buruzko azalpen arina emon dau ondorengo adierazoz:

Zergak, isunak edo beste kontzepturen bat dala eta, udalari ordaintzeko orduan fase bi izaten dira, lehenengoan, udalak zordunari borondatezko epea emoten deutso (udal zergen kasuan, hilabete) ordaintzeko, epe horren barruan ordaindu ezean bigarren fasea izapidetzen da, nahitaezko prozedurea, horren barruan udalak premiamendu-probidentzia kaleratzen dau eta zordunari beste hilabeteko epea emoten deutso eta ordaindu ezean azken horren ondasunak bahitzen dira, ondasunik badauka behintzat. Horrenbestez, udalak lehenengo fasea tramitatu eta premiamenduzko probidentzia idatziko leuke, eta horreen barri Ogasun Foru Sailari emon ostean, horrek premiamenduzko prozedurea tramitatuko leuke.

Amets Jauregizar zinegotziak dino bere taldea, BILDU-BAKIO, aspalditik dagoela eskatzen hitzarmen hori egiteko.

Beraz, Bakioko Udaltzak ondorengo erabagia hartu dau bertaratutako zinegotzien aho batez, eurok EAJ/PNV eta BAKIO-BILDU taldeetako izanik:

1.- Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailaren eta Bakioko toki erakundearen arteko hitzarmena onartzea, beti be azken honen zuzenbide publikoko sarrerek nahitaezko prozeduraren bitartez biltzeko.

2.- Bakioko Udaleko Alkateak sinatuko dauen hitzarmen hori akta honeri eranstea.

5.- URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ETA BAKIOKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZARAKO HITZARMEN-MARKOA ONARTU, HALA

BEHAR BALITZ, BETI BE “SANTA KATALINA ETA SAN PELAIO ZUBIEN ARTEKO TARTEAN, ESTEPONA IBAIAREN BIDERATZE ETA INGURUMEN ALDETIK BERRESKURAPENARI BURUZKO PROIEKTUA” GAUZATZEKO.

Atoan, Aitor Apraiz alkateak hitzarmenaren maninaren pasarte esanguratsuenak gogoratu dauz, modu honetara:

Akordio horren bitartez, Erreterria eremuan uriol arriskurik egon ez daiten, (Uraren Agentzia) Urak eta Bakioko Udalak Estepona ibaiari buruzko bideratze obren eta ingurumen aldetik berreskuratzeko proiektua idatzi eta gauzatzeko eta ekintza horreek finantzatzeko berbea emoten dabe; izan be Foru Aldundiaren Ingurumen Sailak, bere egunean, idatzi baten bidez, Erreterria eremuan 100 eta 500 urteko tartean uriloak egoteko arriskuaz ohartarazo eban Bakioko Udala, eta horrerri urtenbidea emotearen beharrianaz.

Obrei jagokenez, akordioan, guztira, 1000.100,00 euroko aurrekontua daukiela aurreikusten da eta erakunde izenpetzaile bakotxak horren erdiaren ekarpena egingo dauala.

Bakioko Udalak eta Sukia enpresek, hortik aparte, sinatzeko diran hitzarmenaren bitartez, enpresa horrek udalak ordaindu beharreko gastua aurreratuko leuke, lehendik be konpromisoa hartuta dauka, Erreterria eremuaren urigintzaren garapenari buruzko gastuak ordaintzeko.

Amets Jauregizar zinegotziak, BILDU-BAKIO taldearen izenean, hauxe adierazo dau:

Kexea azaldu dau hitzarmena idatzita dagoan moduagaitik, hau da, osorik erdaraz eta euskeraz zati bat besterik ez, informazio batzordera eta udalbatzara agiriak behar dan lez landuta aurkeztu bahar diranean.

Ez dogu hitzarmen-markoan aitatzen dan planoak ezagutzen, agiri hori ulergarria dan arren, jakiteko obreak ze esparru hartuko dauan.

Azken horrezaz, Alkateak erantzun deutso planoak egin dirala baina hitzarmen-markoaren muina dala proiektua eta obrak zelan finantzatu diran zehaztea.

Ametsek hauxe galdetu dau: *onartzea proposatzen dan agiriaren arabera, udalaren ekarpen ekonomikoa 550.000,00 eurokoa izango da, eta argi dagoana da udal aurrekontuko gastuen orrian zenbateko hori zainpetu behar izango dala eta, aldi berean, diru-sarreraren orrian zenbateko bardina zainpetu beharko dala be, eta hori noiz gertuko da?.*

Iker Muruaga zinegotziak erantzun deutso esanez, ezer baino lehen, aitatu dan udalaren eta Sukia enpresearen aldeko hitzarmena sinatu behar izango dala, eta udal aurrekontuan

zainpetuko dala udalak obren kontratazino espedientea onartu aurretik, hau da, lizitazinora atara baino lehen.

Ametsek dino: hitzarmen-markoan ageri da horren jarraipena egiteko Uraren ordezkari bik eta Udalaren beste bik osotuko daben batzordea sortuko dala. Gure proposamena da hori aldatzea, udalaren aldetik, udal hauteskundeen ondorioz eratuko dan Udal Korporazinoko udal talde bakotxeko zinegotzi bat egoteko.

Iker Muruaga eta Alkateak dinotse hitzarmen-markoaren edukia ezin dala aldarazo; izan be, Udalak ezin dau URAk baino ordezkari gehiago izan.

Ametsek dino batzordean Udal Korporazinoko alderdi politiko bakotxeko zinegotzi bat egoteko konpromisoa hartu ahal dala, bai eta, hori gauzatzea ezinezkoa izango balitz (Korporazino barriaren osaerea dala-eta), udal batzorde paralelo bat osatzea hitzarmenaren batzordearen jarraipena egiteko, erabagigune guztietan Korporazinoko alderdi politiko guztiek ordezkatuta egon daiezan.

Iker Muruaga dino ez dakiguna da udal ordezkariak zinegotziak edo teknikariak izango diran.

Alberto Bilbao zinegotziak galdetu dau: dakigunez Carlos Corral ingeniariak, bere egunean, Estepona ibaia bideratu eta zabaltzeko proiektua idatzi eban, horren edukia indarrean jarraituko dau?.

Alkateak eta Iker Muruagak dinotse baietz, ganera proiektu hori oinarri modura hartu eta horrela azaltzen dala hitzarmen markoan, proiektua zehatz-mehatz agian egingo ez da arren, baina abiapuntutzat hartu eta obren atal batzuk be hor dakartzan modura gauzatuko dirala.

Hitzarmen-markoan ageri dan ezkerro, obra egiteko Bakioko Udalak behar diren lurrak aldi baterako nahiz behin betiko eskuratu behar dauzala eta, Amets horren esanahiaren ganean galdetu dau.

Idazkariak dinotso: *obrak egiten hasi orduko, udalaren esku egon behar dira obreak behin betiko eta aldi baterako (obrak amaitu arte) hartuko dauzan lur-zatiak, eskurapena gauzatzeko nahitaezko desjabetze prozedurea edo kontratu motaren bat (trukaketa, salerosketa, eta abar) erabiliz. Ibaiaren obren proiektuan zehaztuta egon behar dira behin betiko eta aldi baterako hartuko diran lur-zatien ezaugarriak, hau da, azalera, mugaketak, jaubearen datuak, Katastroko nahiz Jaubetza Erregistroko datuak eta balorazinoa.*

Alberto Bilbaok galdetu dau lur-zatiak ia noizko egon behar diran udalaren esku.

Idazkariak erantzun deutso esanez obren kontratazino espedientea onartzen danerako, lizitazinoaren aurretik. Lurrak eskuratzeko prozedurea ibaiaren obren proiektua onartu ostean izapidetu behar da, esan dan modura, proiektu horretan lur-zati horreei buruzko

atalak jasoko diralako, eta, printzipioz, lur-zatiak eskuratzeko gastuak udalak ordaindu beharko dauz, obrek hartzen daberen esparrua Erreterria-SR3 eremutik kanpo dagoala kontuan izanik. Dana dala, ibaia bideratu eta zabaltzeko hartu beharreko lur-zati gehienak udalarenak dira, Bakea eremuan kokatuta dagozanak, hain zuzen be.

Idazkariak dino be, lur-zatiak eskuratzeko beharko dan finantzazinoa hitzarmen-marko horretan ez dala aurreikusten, ze ezin dogu jakin euren balorazinoa harik eta proiektua landu arte.

Alberto Bilbaok dino lur-zatiak eskuratzea ekarri leikezan gastuak be Sukia enpresagaz egingo dan hitzarmenean aurreikusi beharko litzatekezela, udalak urbanizazino pribatu bategatik egingo dan obraren gastuak ordaindu beharrik ez daukozelako.

Gai horren ganean eztabaida izan da, batetik, Alberto eta, bestetik, Iker eta Aitorren artean.

Azkenik, zinegotziek botoa emoteari ekin deustie, eta Bakioko Udaltzak ondorengo erabagi hau hartu dau bertaratutako zinegotzien gehiengoaren aldeko botoagaz, hau da, EAJ-PNV udal taldeko Aitor Apraiz, Floren Zabala, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz:

1.- Uraren Euskal Agentziaren eta Bakioko Udalaren arteko lankidetzarako hitzarmen-markoa onartzea, beti be “Santa Katalina eta San Pelaio zubien arteko tartean, Estepona ibaiaren bideratze eta ingurumen aldetik berreskurapenari buruzko proiektua” gauzatzeko.

2.- Bakioko Udaleko Alkateak sinatuko dauen hitzarmen hori akta honeri eranstea.

BILDU/BAKIO taldeko Amets Jauregizar, Alberto Bilbao, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaeche zinegotziek, barriz, abstenidu egin dira.

6.- BAKIOKO UDALAK ONARTUTAKO FAKTUREN ORDAINKETEN BETEARAZPENARI BURUZKO EGOERAREN BARRI EMON.

Garagarrilaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua arabera, diruzainek edo kontuhartzaileek hiru hilabetetik hiruhilabetera txostena egin behar dabe, onartutako fakturen ordainketen betearazpenari buruzko egoera zein dan azalduz, eta horren barri udalbatzari emon.

Hori dala eta, Idazkari-kontuhartzaileak 2015eko urtarrilaren 23ko txostena egin dau udalbatzari jakinarazoteko; izan be, eta Aitor Apraiz alkateak horren edukia irakurri dau, agiri hori zinegotzi guztiek daukien arren. Izan be, txosten horren eguna erreferentzia modura hartuta datuak honeexek dira, beti be bertan ageri danaren arabera,:

	Zenbatekoa	Zenbakia
Ordaintzeko dauden egiaztagiriak edo fakturak	76.422,22 €	40
Epemuga gainditu duten edo eskatzeko modukoak diren egiaztagiriak edo fakturak	816,75 €	3
Guztira ordaindutako fakturak, 2014ko 4. hiruhilekoa	883.144,22 €	221
Jaso diren eta erregistratzeko dauden fakturak guztira erregistroko 3 hilabete gaindituta	0,00 €	0

Horreei buruzko datuak txosten horrerri erantsitako zerrendan ageri da.

Udalbatza horren guztiorren jakinaren ganean geratu da.

7.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Puntu honetara heldu ostean, batzar aretoan dagoan entzule batek, Irati Abio andreak, hain zuzen be, galdetu dau ia ahal dauan adierazpen zehatz bat irakurri, udalbatzak grabetako egi eban eta jasotako erantzunen ganean.

Amets Jauregizar zinegotziak galdetu dau pertsona horrek ia ahal dauan eskatutakoa gauzatu eta aktan jaso.

Iker Muruagak dinotso udalbatza amaitu dala eta eskabidea hortik kanpo dagoala.

Idazkariak dino eskaerak eta galderak zinegotziet egin ahal dabela bakarrik, baina, edozelan be, alkateak, udalbatza zuzentzeko eskumena daukan ezkerro, agerraldi hori baimentzea bere esku dagoala (Toki Erakundeetako Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 94. artikulua).

Gai zerrendako gaiak erabagi dirala kontuan hartuz, eta hortik kanpo mozinorik aurkeztu ez dan ezkerero, ezta zinegotziek galdera eta eskaerarik egin ez daben ezkerero be, udalbatzarra amaitutzat emon da, 20:10ean eta eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkatea

Idazkaria

2015EKO URTARILAREN 29AN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURATIK KANPOKO GAIA

Toki Erakundeetako Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 88.3 eta 228.2 artikuluen arabera, pleno aretoan dagoan publikoaren eta korporazioaren artean galderak eta eskabideak izan daitezke. Izan be, artikulua horreetan, beren-beregi hauxe jasoten da:

88.3 artikulua: *El público asistente a las sesiones no podrá intervenir en éstas, ni tampoco podrán permitirse manifestaciones de agrado o desagrado, pudiendo el Presidente proceder, en casos extremos, a la expulsión del asistente que por cualquier causa impida el normal desarrollo de la sesión. Sin perjuicio de ello, una vez levantada la sesión, la Corporación puede establecer un turno de consultas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal.*

228.2 artikulua: *Terminada la sesión del Pleno, el Alcalde puede establecer un turno de ruegos y preguntas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal. Corresponde al Alcalde ordenar y cerrar este turno.*

Horrenbestez, 88.3 eta 228.2 artikuluetan azaldutakoagaz bat etorritz, eta alkate jaunak Iratik eskatutakoari eragozpenik ipini ez deutson ezkerero, Irati Abiok adierazpenari irakurtzeari ekin deutso.

2013ko martxoak 13an ez ohiko plenora kamara batekin bertaratu nintzen osoko bilkura grabatu eta sare sozialetan zabaltzeko asmoz. Nire helburua, herritarrei osoko bilkuran hartuko ziren erabakien berri ematea izan zen. Nire kamara eta tripodearekin osoko bilkurara bertaratu nintzenean, alkateak gelditu zidan. Plenoa grabatzea galarazteko zentzu askorik ez zeukaten hainbat argumentu jarri zizkidan eta zaharkituta gelditu diren hainbat lege aipatu zizkidan. Ez nuen oso ondo ulertu bere hauteskunde programan gardentasunez jokatu zuela aipatzen zuen alderdiak, herritar bateri plenoa grabatzea galaraztea. Nahiz eta nik banekien beste herri batzuetan arazo berdina egon zela eta epaitegiek alde batetik eta Arartekoak beste alde batetik, herritarrok plenoa grabatzeko eskubidearen aldeko ebazpenak idatzi zituztela, berau PNVko udal gobernuari jakinarazteko idatzi bat sartu nuen martxoaren 17an. Posible liteke udal gobernuak ez izatea ebazpen hauen berri.

Harrigarria izan zen erantzuna, "Irati Abio Muruaga andreari plenoak grabatzeko eskubidea ukatzea erabaki du alkatetza honek".

Egia esan, amorruz eta haserre hartu nuen udal gobernuaren erabakia. Herritarron eskubideak bermatu behar dituen insituzio publikoak ukatu egin zidan osoko bilkura grabatzeko nuen eskubidea. Zer egin behar nuen? Argi nuen nire eskubideak errespetatuak izateko aldarria azkeneraino eramango nuela. Hurrengo urratsa Arartekoarengana jotzea izan zen. Idatzi baten bitartez dena azaldu nion Arartekoari, berak, gaia aztertuko zuela erantzun zidan eta hori esan eta 10 hilabetera jaso dut erantzuna. Egia esan urduri jaso dut. Urduri bai. 10 hilabete pasatu behar izan dira urratu didazuen eskubidea berreskuratzeko. Pozik hartu dut ebazpena baina baita frustrazioz ere, azken baten, Arartekora joan ez banintz nire eskubidea urratuta egongo litzatekelako eta nirekin erabili duzuen argumentu bera, beste herritar batzuekin erabiltzeko, atea zabalik geratuko litzatekelako. Ez al da udalaren beharrezana herritarron eskubideak babestea? Nire kasuan instituzio publikoak alderdi politiko baten erabaki politikoa babestu du. Horrela sentitzen dut nik, izan ere gai hau ez dute inolako batzorde informatibo edo bilkuretan landu

Orain osoko bilkura grabatzeko baimena eman didate, baina askotan udaletxe honetan gertatzen den bezela baimena berandu dator. Ez dizuet eskerrik emango baimena emateagatik argi daukadalako eskubide bat 10 hilabetez urratu didazuela. Nire ustez, urraketa horrek argi uzten du zuen diskurtsoetan azpimarratzen duzuen gardentasuna errealitatetik urrun dagoela.

Alkateak dino: udalbatzak grabatu egiten dira eta, ganera, aktak Interneten ipinten dira, beraz gardentsauna egon badago. Guk esaten genduan zera zan: udala prest dagoala udalbatzak oso-osorik grabatu eta Interneten ipinteko, baina, hori gauzatu orduko ez dot ondo ikusten edonoren aldetik udalbatzen zatiak baino ez grabatzea.

Gai hori dala-eta Irati eta Alkatearen artean eztabaida izan da.

Amets Jauregizar zinegotziak dino funtsezkoa dala Arartekoak adierazotakoa, hau da, ez dala legezkoa edozein pertsonak udalbatzak grabatzeko daukan eskubideari eragozpenak ipintea.

Aitorrek honakoa erantzun deutso: Arartekoaren txostena ez da loteslea, auzitegiaren epaiak diran modura. Ganera, grabatzeko eskubideari jagokonez, jurisprudenzia aldetik, epai desberdinak dagoz, hasikera batean epaietan argi adierazoten zan grabatzeko eskubidea erabiltzeko alkatearen baimena ezinbestekoa zala, baina denporeak aurrera egin ahala, eskubide horren ganeko bilakaerea gertatu da epai zehatz batzuk agertu arte esanez edozein personak daukala udalbatzak grabatzeko eskubidea eta, beraz, udal organoaren baimena ez dala beharrezkoa.

Ametsek dinotso kontsultiboak diran arren, aintzat hartu beharrekoak dirala, eta, beraz, daukan garrantziaren adierazgarritasuna dala Arartekoak aurreko urtean egin dauzan aholku-txostenei buruzko azalpenak Euskal Legebiltzarrari emon izana.

Azkenean, eztabaida baten amaitu da udalburuaren eta zinegotzi horren arteko adierazpenak.

Alkatea